koalifikazioen eta
lanbide heziketaren
euskal institutua

Instituto vasco de
cualificaciones y
formación profesional

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA**

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE
ETA KULTURA
ZERBITZUAK

# HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

## 1 modulua: **Haur Hezkuntzaren Didaktika**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOEN PROGRAMAZIOA**

PROGRAMACIÓN DE LOS CICLOS FORMATIVOS DE FORMACIÓN PROFESIONAL

GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK

## HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

# 1. modulua: **Haur Hezkuntzaren Didaktika**

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: http//www.euskadi.net/ejgvbiblioteka

Argitaraldia: 1.a, 2009ko ekaina

Ale-kopurua: 50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Mari Mar Fernández Ruiz

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com

Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

Inprimatzea: mccgraphics

L.G.: VI 398/2009



Iraupena: 200 ordu
UDen kopurua: 8

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subIEktiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzera eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzera gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

# AURKIBIDEA


UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA — 04. or.

0 — 0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena. — 05. or.

1 — 1. unitate didaktikoa: Haur-hezitzailearen lanbide-irudia aztertzea. — 08. or.

2 — 2. unitate didaktikoa: Haurren interesen alde eta haurrekin lotutako legeriarekin lotuta lan egiten duten erakundeak aztertzea. — 12. or.

3 — 3. unitate didaktikoa: Haur-hezkuntza garatzen den testuinguruaren azterketa aktiboa. — 17. or.

4 — 4. unitate didaktikoa: Curriculumaren kontzeptua eta berau lantzeko oinarriak aztertzea. — 21. or.

5 — 5. unitate didaktikoa: Programazioa diseinatzea eta ezartzea. — 26. or.

6 — 6. unitate didaktikoa: Hezkuntza-baliabideak eta aukera metodologikoak hautatu eta erabiltzea. — 32. or.

7 — 7. unitate didaktikoa: Ikastetxe batean antolamendu-dokumentuak diseinatzea: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxearen Curriculum Proiektua. — 38. or.

8 — 8. unitate didaktikoa: Haur-hezkuntzan ebaluazio-tresnak landu eta erabiltzea. — 41. or.

## Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

| EDUKI MULTZOAK | | | | | | UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK | IRAUPENA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| B 1 | B 2 | B 3 | B 4 | B 5 | B 6 | | |
| | | | | | | UD 0: Moduluaren aurkezpena. | 1 h. |
| X | | | | | | UD 1: Haur-hezitzailearen lanbide-irudia aztertzea. | 14 h. |
| X | | | | | | UD 2: Haurren interesen alde eta haurrekin lotutako legeriarekin lotuta lan egiten duten erakundeak aztertzea. | 22 h. |
| X | | X | | | | UD 3: Haur-hezkuntza garatzen den testuinguruaren azterketa aktiboa. | 20 h. |
| | X | | | | | UD 4: Curriculumaren kontzeptua eta berau lantzeko oinarriak aztertzea. | 32 h. |
| | | | | X | | UD 5: Programazioa diseinatzea eta ezartzea. | 32 h. |
| | | X | X | | | UD 6: Hezkuntza-baliabideak eta aukera metodologikoak hautatu eta erabiltzea. | 30 h. |
| | X | | | | | UD 7: Ikastetxe batean antolamendu-dokumentuak diseinatzea: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta Ikastetxearen Curriculum Proiektua. | 25 h. |
| | | | | | X | UD 8: Haur-hezkuntzan ebaluazio-tresnak landu eta erabiltzea. | 24 h. |
| | | | | | | GUZTIRA | 200 ordu |

*1. multzoa: Hezkuntzako esku-hartzearen testuingurua aztertzea.*
*2. multzoa: Hezkuntzako esku-hartzea diseinatzea.*
*3. multzoa: Estrategia metodologikoak zehaztea.*
*4. multzoa: Hezkuntzako esku-hartzean espazioak, denborak eta baliabideak planifikatzea.*
*5. multzoa: Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko jardueren abiaraztea antolatzea.*
*6. multzoa: Esku-hartzeko prozesuaren ebaluazioa diseinatzea.*

| 0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA | | Iraupena: 1 ordu | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|

**Ikaskuntzaren helburuak:**

1. Moduluaren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere.
2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea.
3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea.
4. Moduluaren unitate didaktikoen arteko eta moduluaren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea.
5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea.<br>• Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. | | | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura.<br>• Moduluaren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian.<br>• Moduluaren helburuak.<br>• Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. | | | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea.<br>• Moduluaren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. | | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J1 Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena. | 1 | 10 m. | X | X | Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da. | Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango. | Ez da bitarteko berezirik behar. |
| J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena. | 2-4 | 10 m. | X | X | Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du. | Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste. | Arbela.<br>Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa.<br>Kronogramak<br>Informazioa duten fotokopiak. |
| J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena. | 2-3 | 10 m. | X | X | Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuez lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu.<br>Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da. | Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna. | Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar. |
| J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa. | 5 | 30 m. | X | X | Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez. | Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari. | Galdera sortak. |

| OHARRAK |
|---|
| • Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.<br>• J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.<br>• Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira. |

| 1. unitate didaktikoa: HAUR HEZITZAILEAREN LANBIDE IRUDIAREN AZTERKETA | Iraupena: 14 ordu |
|---|---|

*IE 1: Hezkuntzako esku-hartzea testuinguruan jartzen du, eta hura lege-esparruarekin eta erakundearen helburuekin lotzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Haur Hezkuntzako teknikariaren lanbide-jarduera hezkuntzako esku-hartzearen testuinguruan baloratzea eta ulertzea.
2. Ekimena eta prestasuna agertzea lanbidearen egoera berrian aurrean.
3. Teknologia berriak informazio-iturri gisa erabiltzea eta baloratzea.

| EDUKIAK | | Multzoak 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| PROZEDURAZKOAK | • Haur Hezkuntzako teknikariaren eginkizuna aztertzea.<br>• Hezkuntza-jardunaren egoeretan lanbideak ezinbestekoak dituen konpetentziak, jarrerak eta printzipioak identifikatzea. | X<br>X | | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Haur Hezkuntzako teknikariaren eginkizuna hezkuntzako esku-hartzean. Definizioa. Oinarrizko konpetentziak eta printzipioak. | X | | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Bilakaeraren garapenean eredu gisa haur-hezitzailearen irudiak duen garrantziaren inguruan kontzientzia hartzea.<br>• Konpromisoa hezkuntza-zereginarekiko.<br>• Haurraren eskubideak errespetatu eta babestea.<br>• Egungo eta lehengo hezkuntza-esparruaren testuinguruarekiko interesa.<br>• Ekimena eta prestasuna lanbidearen egoera berrian aurrean.<br>• Teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratzea.<br>• Talde-lanaren garrantzia baloratzea. | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK Ir. | NORK Ik. | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| J1 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | Guztiak | 1 h. | X | | Irakasleak galdeketa bat egingo die ikasleei gaia hasi aurretik; horren bidez, lanbidearen aurkezpena egingo du. | Aukeratutako lanbidea ondo garatzeko eta hasitako prozesuari behar bezalako interesa eskaintzeko motibatuko dira | Arbel magnetikoa.<br>Galdera sorta indibiduala. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Inkesta edo galdeketa banaka beteko dute ikasleek eta, ondoren, lEndaurrean adieraziko dira emandako erantzunak. Amaitzeko, irakasleak argibideak emango ditu. | ikasleak. | |
| J2 Hezitzailearen profilari buruzko azalpena. | 1,2 | 2 h. | X | | Irakasleak haur-hezitzailearen profilari buruzko edukiak azalduko ditu: ezaugarriak, funtzioak, konpetentziak eta printzipio deontologikoak. Azalpenarekin batera adibideak eta egoera praktikoak jarriko dira. | Lanbidea arautzen duten printzipioak ezagutuko dituzte ikasleek, eta printzipio horiek ondo erabiltzeko oinarriak sendotuko dira.<br><br>Ikasleek Haur Hezkuntzan sarritan gertatzen diren egoeren inguruan hausnartzea bilatzen da. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |
| J3 Talde-lana: Horma-irudi bat egitea. | 1,2 | 1 h. | | X | Aurreko jardueraren azalpena eman ondoren, 4-5 ikaslek osatutako taldeak egingo dira eta hezkuntza-esparruan esku hartzeko printzipio nagusiei buruz hausnartzeko eskatuko zaie. Horrekin batera, haur-hezitzailearen kode deontologiko bat osatzeko eskatuko zaie eta horma-irudi batean adierazteko; horma-irudia paretan jarriko da ondoren. | Hezkuntza-jardunean portaera egokia agertzeak duen garrantzia azpimarratuko da.<br><br>Ikasleak dagokien esku hartzeko esparruari buruzko gogoeta egitera animatu nahi dira eta talde-lanak dituen abantailak baloratzea. | Kartoi meheak.<br>Errotulagailuak.<br>Aldizkariak edo argazkiak.<br>Guraizeak.<br>Kola. |
| J4-E1 Praktika autonomoa:<br><br>J4.1 Lanbidean gertatzen diren egoeren iruzkina. | 1,2 | 2 h. | | X | Irakasleak bideo bat jarriko die ikasleei eta, ondoren, hezitzaileek euren lanbide-jardunean duten portaera eta jarrerei buruzko iruzkinak banaka egiteko eskatuko zaie. Amaitzeko, gela osoaren aurrean aztertuko dira emandako erantzunak. | Modu aktibo batean hezkuntza-jardunaren egoera zehatzak eta ohikoak aztertuko dira.<br><br>Ikasleak hezkuntza-jardunaren ohiko egoeretara ohitzen hasten dira.<br><br>Ikasleak egoera jakin baten aurrean bere iritzia azaltzen eta defendatzen ikasten du. | Bideoa-DVDa-filma.<br>Bideo-DVD erreproduzigailua.<br>Arbel magnetikoa. |
| J4.2 Eguneroko bizitzako egoerak | 1,2 | 1 h. | | X | Ikasleek aurreko jardueran jarraitu | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| aztertzea. | | | | | duten eskema eguneroko bizitzako egoeretan aplikatuko dute. 0 eta 6 urte bitarteko haurren eta horien guraso, zaintzaile, eta abarren arteko erlazioak aztertzeko eskatuko zaie. | | |
| J5 Eztabaida: Haur-hezitzaile baten jarrerak eta gaitasunak. | 1,2 | 1 h. | | X | Haur-hezitzaileak eduki behar dituen jarrera eta portaerei buruz eztabaidatuko dute ikasleek taldean, eta hezitzailea izango da moderatzailea. | Komunikazioa eta entzute aktiboa garatzen da, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikasten dute ikasleek.<br><br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzen ikasten dute. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J6 Talde-lana: Hezitzaile batekin elkarrizketa. | 1,2 | 3 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak egingo dira eta hainbat tipologiatako hezitzaileekin hitz egin eta elkarrizketa bat egiten saiatuko dira. Lanean hasi aurretik, gidoi bat prestatuko dute eta *rapport* bat ezarriko dute. Amaitzeko, ondorioak atera eta gelan eztabaidatuko dira. | Ikasleek hezitzailearen profila zuzenean ezagutzen dute: profil pertsonala, profesionala, dagokion errealitatea, bere arazoak, eta abar.<br>Jarduteko modu desberdinak ezagutzen dira: haur-eskola batean, ludotekan, eta abar. | Material suntsikorra.<br>Hezitzailea.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J7 Praktika autonomoa: Zer profil duzu hezitzaile gisa? | 1, 2, 3 | 1 h. | | X | Irakasleak taula bat emango dio ikasleari eta ikasleak bere autoebaluazioa egingo du bertan (1etik 5era), hainbat alderdiren inguruan: konpetentziak, jarrerak eta portaerak. Autoebaluazioa amaitzean, ikasle bakoitzak zehaztuko ditu dagozkion hobekuntza-lerroak. | Ikasleek euren alderdi ahulak eta sendoak ezagutzen dituzte eta hobera egiteko aukera dute.<br><br>Ikasturtearen erdian eta amaieran errepikatu beharko litzateke jarduera hau, izan ere, oso baliagarria izan daiteke ikasleek euren lanbide-rola lortzeko egiten duten aurrerapena behatzeko. | Taula.<br>Lan pertsonala egiteko materiala. |
| J8 Hitzaldia: Haur Hezkuntzako aditu bat. | 1, 2, 3 | 2 h. | | | Lehenengo unitatea amaitzeko, eta | Lanbidea bertatik bertara ezagutzeko | Arbel magnetikoa. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | ondorio moduan, haur-hezkuntzako aditu bat gonbidatuko da ikasgelara. Lanbidearekin erlazionatutako alderdi orori buruz hitz egiteaz gain, baliabide eta material erabilienak erakutsiko dizkie, in situ ezagutu ditzaten. | aukera ematen da. Praktikaren bitartez, hautatutako lanbidean hastera animatu nahi dira ikasleak. | Power Point-eko aurkezpena. Haur-hezkuntzako eta, batez ere, lehen zikloko, materialak. |

| OHARRAK |
|---|
| • J4 jarduera egiteko gaiari buruzko bideo-DVDrik ez badago, egoera desberdinak erakusten dituzten testu laburrak irakur daitezke.<br>• Unitate honetan aditu baten parte-hartzea lortzen ez bada, aurrerago egiteko aukera dago.<br>• Modulu osoan hartuko da kontuan unitate honetako edukia. |

| 2. unitate didaktikoa: HAURREN ERAKUNDEAK ETA LEGERIA AZTERTZEA | Iraupena: 22 ordu |
|---|---|

*IE 1: Hezkuntzako esku-hartzea testuinguruan jartzen du, eta hura lege-esparruarekin eta erakundearen helburuekin lotzen du.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Esku-hartzeko erabilgarria den ingurune sozialari, ekonomikoari eta kulturalari buruzko informazioa identifikatzea.
2. Haurren eskubideekin lotutako oinarrizko terminologia aztertzea.
3. Haurren eskubideen defentsari buruzko agiriek historian izandako bilakaera aztertzea.
4. Haurren arretarako nazioarteko erakundeak aztertzea.
5. Haurren arretarako hezkuntza-zerbitzuei buruz autonomia-erkidegoan, Estatuan eta Europan indarrean dagoen legeria aztertzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Haurren arreta-zerbitzuen inguruan indarrean dagoen legeria aztertzea.<br>• Haurren arretarako erakundeak aztertzea. | X<br>X | | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Haurren arreta-zerbitzuen inguruan, esparru formalean eta ez-formalean, indarrean dagoen legeria, Europan, Estatuan eta autonomia-erkidegoan.<br>• Haurren eskubideak.<br>• Haurren eskubideak defendatzeko lan egiten duten erakundeak. | X<br>X<br>X | | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Haurraren eskubideak errespetatu eta babestea.<br>• Konpromisoa hezkuntza-zereginarekiko.<br>• Irakasleek haurren eskubideak bermatzeko betetzen duten eginkizuna baloratzea. | X<br>X<br>X | | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | Guztiak | 1 h. | X | | Irakasleak unitate didaktikoaren ikaskuntzaren helburuak eta edukiak aurkeztuko ditu, eta gainerako unitate eta moduluekin erlazionatuko du. | Ikasleak hezkuntza-munduaren inguruko lege-esparruaz jabetzea bilatzen da, bai eta haurren eta hezkuntza-zereginean lan egiten duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak ezagutzea ere. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |
| J1 Azterketa terminologikoa. | 1, 2, 3, 4, 5 | 2 h. | X | | Hautatutako lanbidea garatzeko ezagutu beharreko oinarrizko kontzeptuak, lege-mailakoak zein hezkuntza-mailakoak, argituko ditu irakasleak, eta adibideak jarriko ditu.<br>Hainbat terminoren definizioa emango du, besteak beste, deklarazioa, konbentzioa…, esku-hartzea, inklusioa, eta abar.<br>Amaitzeko, hezkuntza formala, ez-formala eta soziala-arretazkoa bereiziko ditu irakasleak, nahiz eta sarrera labur bat bakarrik egingo duen, hurrengo unitate didaktikoan landuko baita gaia. | Ziklo osoan eta lanbide-bizitzan erabiliko duten oinarrizko terminologia ezagutzen hasten dira ikasleak. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |
| J2-E1 Praktika gidatua eta praktika autonomoa:<br>“Prentsa-karpeta”: Haurren eskubideen alde”. | 1, 2 | 3 h. | X | X | Irakasleak haurren eskubideei buruzko albiste bat erakutsiko die ikasleei.<br>Ikasleen jakin-mina piztu nahi da, informazio-iturri desberdinetara jo eta gaiarekin erlazionatutako albiste laburrak aurkitzera animatzeko.<br>Ondoren, ikasleek banaka hautatu dituzten albisteak talde txikitan | Ikasleen sentsibilizazioa bilatzen da.<br>Haurtzaroari eta Hezkuntzari buruzko prentsa-karpeta bat osatu eta ikasturtean eguneratu egingo dute ikasleek. Unitateko modulu desberdinetan erabiltzeko oso baliagarria izango da.<br>Parte-hartzeko giroa sortu eta | Interneterako konexioa duten ordenagailuak.<br>Ordenagailu-gela.<br>Egunkariak, aldizkariak, eta abar.<br>Irratia, telebista.<br>Karpeta edo artxiboa.<br>Pendrive-ak.<br>Karpeta egiteko beharrezkoa den |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | iruzkinduko dituzte eta, amaitzeko, ikasgela osoarekin aztertu eta karpeta batean artxibatuko dira.<br>Ikasleek aipatutako karpetako edukia osatu egingo dute ikasturtean zehar haurrei eta hezkuntza-munduari buruz argitaratzen diren albiste gehiagorekin. | metodologia aktiboei jarraituz lanean hastea bilatzen da. Ikasleak dira protagonista eta ikaskuntzak modu esanguratsuan bereganatzea bilatzen da.<br>Jarduera honen helburua da, gai bat aukeratu eta horri buruzko informazioa jasotzea, ondoren gelaren aurrean iruzkintzeko edo defendatzeko; era berean, eztabaidak antola daitezke. | material suntsikorra. |
| J3 Esku hartzeko testuingurua azaltzea. | 1, 2 | 2 h. | X | | Irakasleak haur-hezkuntzan esku hartzeko testuingurua azalduko die ikasleei, maila orotan: nazioartea, Europa, Estatua eta autonomia-erkidegoa, eta inmigrazioaren fenomenoa azpimarratuko du. Azalpen hori hezkuntza-ikuspegia zein legeriarena kontuan hartuta emango da. | Ikasleek esku hartzearen ikuspegi orokorra bereganatzeaz gain, gaur egungo errealitate, legeria eta oinarrizko agiriekin erlazionatutako funtsezko alderdiak ezagutuko dituzte. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |
| J4 Haurren eskubideak defendatzeko agiriek historian izandako bilakaerari buruzko azalpena eta praktika autonomoa. | 3 | 2 h. | X | X | Irakasleak klase magistrala emango du haurren eskubideak defendatzeko historian landu diren agiriak aurkezteko. Ondoren, ikasleek agirien azterketa konparatiboa egingo dute banaka, eta gaur egunera arte izan duten bilakaera baloratuko dute. | Ikasleek haurren eskubideen esparruak historian izandako bilakaera ezagutzen dute.<br>Banakako lana eta gai baten azterketa eta laburpena egiteko gaitasuna sustatzea bilatzen da. | Lanerako material pertsonala.<br>Testu-liburua. |
| J5 Haurren eskubideak defendatzeko kanpainekin erlazionatutako hainbat bideo ikustea. | 3 | 1 h. | | X | Irakasleak haurren eskubideen defentsari buruzko hainbat bideo ikusteko proposatuko die ikasleei. | Ikasleek haurren eskubideak ezagutuko dituzte; haurren eskubideak errespetatzeak duen garrantziaren gainean ikasleak sentsibilizatzea bilatzen da. | Bideoa-DVDa.<br>Bideo-DVD erreproduzitzailea. |
| J6 Taldeko praktika: Haurren eskubideen | 3 | 2 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak antolatu | Ikasleek haur-eskolan garatzen den | Kanpaina egiteko beharrezkoa den |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| gainean sentsibilizatzeko kanpaina bat diseinatzea. | | | | | eta sentsibilizazio-kanpaina bat egiteko eskatuko zaie. Aldez aurretik aditzera emandako eskubide batzuk nabarmendu beharko dituzte. | jardueretako baten simulazioa egiten dute, adibidez: haurren nazioarteko eguna edo haurren eskubideen astea. Ikasleen sormena pizteko balio du. | materiala. |
| J7-E2 Talde-lana:<br>"Haur-hezkuntza munduan" gaiari buruz. | 1,4 | 3 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak egin eta Interneten bi gairi buruzko informazioa bilatzeko eskatuko zaie:<br>▪ Hezkuntza-esperientziak beste herrialde batzuetan.<br>▪ Haurren alde lan egiten duten nazioarteko erakundeak. Gobernukoak eta gobernuz kanpokoak bereiziko dira.<br>Ikasleen erdiak lehenengo gaia landuko du eta beste erdiak bigarrena. Informazioa jaso ondoren, talde bakoitzari azalpenezko lan labur bat egiteko eskatuko zaio. Gainerako ikasleen aurrean defendatu beharko dute lana. | Zona geografikoa eta kultur joera kontuan hartuta, esku hartzeko modu desberdinak daudela azalduko zaie ikasleei.<br>Haurren arretarako nazioarteko erakundeak ezagutzeko balio du.<br>Ikasleek talde-lanak duen garrantzia baloratuko dute. Era berean, ikaskuntza esanguratsuak egiteko metodologia aktibo bat jarraitzeak duen garrantziaz ohartuko dira, egiten duten lanaren bitartez. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Pendrive-ak.<br>Azalpenezko lana egiteko beharrezkoa den materiala. |
| J8 Haurren eskubideei buruzko film bat ikustea edo beste herrialde bateko hezkuntza-esperientzia bat ezagutzea. | 1, 2, 3 | 2 h. | | X | Ikasleek filma ikusiko dute eta, ondoren, filmaren iruzkina egingo dute banaka. | Landutako gaien inguruan hausnarketa indibiduala egiten eta adibide zehatzak jartzen ikasten dute ikasleek. | Bideoa-DVDa.<br>Erreproduzigailua.<br>Lanerako material pertsonala. |
| J9 Oinarrizko legeriari buruzko azalpena eta praktika autonomoa. | 5 | 2 h. | X | X | Klase magistrala egin eta gero, ikasleek haurrekin erlazionatutako legerik esanguratsuenen laburpena egingo dute. Autonomia-erkidegoko zein Estatuko legeak barne hartuko dira eta hitz eta adibide esanguratsuak azpimarratzeko eskatuko zaie ikasleei. | Lanbide-jarduna behar den bezala garatzeko oinarrizko ezagupenak aberasten dira. | Lan pertsonala egiteko materiala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J10-E3 Errepaso-ariketak. | Guztiak | 2 h. | X | X | Ikasleek hainbat errepaso-ariketa egingo dituzte. Zailtasun gehien | Ikasleak lortutako ezagutza-mailaz ohartzea eta zalantzak argitzeko gai | Lanerako material pertsonala.<br>Errepaso-ariketak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | sortzen dituzten elementuak edo alderdiak ezagutzeko balioko dute. Jarduera honetan sor daitezkeen zalantza guztiak argituko ditu irakasleak. | izatea bilatzen da. | |

**OHARRAK**

- Azalpenak laguntzeko eta errepaso-ariketak egiteko testu-liburu bat dago.
- Jardueren iraupena taldearen eta beraren ezaugarrien arabera erabakiko da. Era berean, materiala aldatzeko aukera ematen da, betiere helburuak lortzeko beharrezkoak diren eduki guztiak lantzen badira.
- Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Gainera, ikasleei gelan landutako materiala defendatzeko eskatuko zaie, banaka zein taldean, jarduera osatzeko beharrezkoa denean.

| 3. unitate didaktikoa: HAUR HEZKUNTZA GARATZEN DEN TESTUINGURUA AZTERTZEA | Iraupena: 20 ordu |
|---|---|

*IE 1: Hezkuntzako esku-hartzea testuinguruan jartzen du, eta hura lege-esparruarekin eta erakundearen helburuekin lotzen du.*
*IE 3: Eredu psikopedagogikoen arabera aplikatu beharreko estrategia metodologikoak zehazten ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Hezkuntza formala, ez-formala eta soziala-arretazkoa bereiztea.
2. Hezkuntza formala, ez-formala eta soziala-arretazkoa eskaintzen duten ikastetxe eta programa motak elkarrekin alderatzea.
3. Hezkuntza ez-formaleko erakunde baten ezaugarriak, helburuak, antolamendua eta funtzionamendu mota deskribatzea.
4. Haurrei arreta eskaintzeko ereduen oinarri diren printzipioak interpretatzea.
5. Haurrei arreta eskaintzeko ereduen oinarri diren printzipio psikopedagogikoak aztertzea.
6. Hezkuntzako esku-hartzea bera zehazteko hezkuntza-esperientzia garrantzitsuak alderatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko erakundeak identifikatzea. | X | | | | | |
| | • Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko erakundeen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzea. | X | | | | | |
| | • Egungo hezkuntza-ikuspegia ulertzen lagunduko diguten egileen eta joeren ibilbide historikoa egitea. | | | X | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Haurren arretarako erakunde formalak eta ez-formalak. Motak. Ereduak. Eginkizunak. Ezaugarriak. | X | | | | | |
| | • Haur-eskola. Ereduak. Eginkizunak. Ezaugarriak. | | | X | | | |
| JARRERAZKOAK | • Egungo eta lehengo hezkuntza-esparruaren testuinguruarekiko interesa. | | | X | | | |
| | • Teknologia berriak informazio-iturri gisa baloratzea. | X | | | | | |
| | • Talde-lanaren garrantzia baloratzea. | X | | | | | |

<table>
<tr><th colspan="5">JARDUERA</th><th colspan="2">METODOLOGIA</th><th>BALIABIDEAK</th></tr>
<tr><th rowspan="2">ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota</th><th rowspan="2">Helburu inplikat.</th><th rowspan="2">D.</th><th colspan="2">NORK</th><th rowspan="2">NOLA egingo den</th><th rowspan="2">ZERTARAKO egingo den</th><th rowspan="2">ZEREKIN egingo den</th></tr>
<tr><th>Ir.</th><th>Ik.</th></tr>
<tr><td>J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.</td><td>Guztiak</td><td>1 h.</td><td>X</td><td></td><td>Irakasleak unitate didaktikoaren ikaskuntza-helburuak aurkeztuko ditu eta ikasleek moduluaren ikaskuntzen barruan barne hartu beharko dituzte.</td><td>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da. Ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzea eta ikaskuntza esanguratsuak egitea bilatzen da.</td><td>Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena.</td></tr>
<tr><td>J1 Hezkuntza motei buruzko azalpena eta jarduerak.</td><td>1</td><td>2 h.</td><td>X</td><td>X</td><td>Irakasleak hezkuntza mota desberdinen azalpenak emango ditu: formala, ez-formala eta soziala-arretazkoa.<br>Jarraian, hezkuntza mota desberdinak aztertu beharko dituzte ikasleek. Lana errazteko, irakasleak taula bat banatuko die.</td><td>Ikasleek dagokien lan-esparruaren ikuspegi orokorra bereganatzea bilatzen da.<br>Haur-hezitzailearen lan-zentro desberdinak identifikatzen dira.</td><td>Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena.</td></tr>
<tr><td>J2-E1 Talde-lana: Inguruko gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak.</td><td>1, 2, 3</td><td>4 h.</td><td></td><td>X</td><td>Bizi diren inguruko gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuak sailkatzeko eta katalogatzeko eskatuko zaie ikasleei. 4-5 ikaslek osatutako taldeak egingo dira eta honako zeregin hauek banatuko ditu irakasleak:<br>- Autonomia-erkidegoko haurren arreta-zentroen tipologia osatzea. Zentroen izenak eta ematen dituzten zerbitzuak zehaztuko dituzte (hezkuntza formala, ez-formala eta soziala-arretazkoa).<br>- Zentro horiek bisitatzea edo telefonoz zein posta elektronikoz harremanetan jartzea, eta bakoitzaren fitxa bat osatzea. Zenbat eta datu gehiago jarri orduan eta hobeto.<br>Eskaintzen diren zerbitzuen katalogoa osatzea:</td><td>Ikasleak inguruan eskaintzen diren zerbitzuen katalogoak duen garrantziaz ohartzeko balio du.<br><br>Ikasleek landa-lana ezagutuko dute eta lanbidearekin erlazionatutako gaien inguruan interesa pizteko balioko du.</td><td>Lanerako material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Fitxak eta katalogoa osatzeko materiala.</td></tr>
</table>

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | argazkiak, eta abar. | | |
| J3 Talde-lana: psikologiak haur-eskolari egindako ekarpenak. | 4,5 | 4 h. | | X | Bikoteka edo hirunaka jarriko dira ikasleak eta psikologia-eskola desberdinei buruzko informazioa bilatzeko eskatuko zaie (talde bakoitzak eskola bat). Egilerik esanguratsuenen ibilbidea aztertu beharko dute.<br>Informazioa jaso eta gero, laburtzeko eta taldearen-gelaren aurrean azaltzeko eskatuko zaie. | Ikasleek egile desberdinek egindako ekarpenak baloratuko dituzte eta, gainera, informazioa kudeatu ondoren, daturik interesgarrienak taldearen aurrean azaltzen ikasiko dute. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Lana edo erakusketa osatzeko materiala. |
| J4-E2 Pedagogiaren ekarpenei buruzko azalpena eta jarduerak. | 1, 2, 3 | 2 h.<br><br>3 h. | X | <br><br>X | Irakasleak hainbat egilek egindako ekarpenei buruz hitz egingo du: Rousseau, Fröbel, Agazzi,  Freinet, Monessori, Decroly… Bideo bat erabiliko du, jarduteko modu desberdinak erakusteko.<br>Ondoren, role-playing bat antolatuko da ikasleekin. Irakasleak deskribatutako ekarpenen simulazioak egingo dira. Materiala prestatu behar da, gela antolatu, eta abar. | Pedagogiak haur-hezkuntzara egindako ekarpenak ezagutuko dituzte ikasleek. Gainera, euren hezkuntza-jardunerako erabilgarri izatea bilatzen da. | Arbela elkarreragilea.<br>Power Point-eko aurkezpena.<br>Bideoa-DVDa.<br>Bideo-DVD erreproduzitzailea.<br>Role-playing-a egiteko beharrezkoa den materiala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J5 Ekarpen pedagogikoei eta psikologikoei buruzko taldeko-eztabaida. | 4, 5, 6 | 1h. | | X | Ikasleek ekarpenik esanguratsuenei edo eraginkorrenei buruz eztabaidatuko dute taldean, eta hezitzailea izango da moderatzailea. | Komunikazioa eta entzute aktiboa garatzen da, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikasten dute ikasleek.<br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzen ikasten dute.<br>Ideiak aberastean emaitzak hobetzen direla azpimarratzeko eta egiaztatzeko balio du. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J6 Errepaso-ariketak. | Todos | 2 h. | X | X | Unitate honetan eta aurreko bietan landutako gaiak gogoratzeko ariketak egingo dituzte ikasleek. Errepasoa egitean sortzen diren | Zalantzak argitzeaz gain, ikaskuntzak eta azken probako emaitzak hobetzen dira. | Material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | zalantza guztiak argituko ditu irakasleak. | | |
| E3 Azken ebaluazioa: Idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h. | | X | Ikasleek azken bi unitateetan landutako gaiei buruzko galdeketa bat erantzungo dute banaka. | Gelan landutako azken ikasgaiarekin erlazionatutako konpetentzia teknikoak bereganatu direla egiaztatzeko balio du. | Idatzizko proba. |

OHARRAK

- J2 jardueraren kasuan, informazioa jasotzeko eta ondorengo aurkezpena egiteko gelan eskainiko den denboraz gain, hilabete bat utziko da jarduera osorik garatzeko, handia baita egin beharreko landa-lana.
- Azalpenak laguntzeko eta errepaso-ariketak egiteko testu-liburu bat dago.
- Jardueren iraupena taldearen ezaugarrien eta erabilgarri dauden baliabideen arabera erabakiko da.
- Ebaluazio-jardueren kasuan, ikasleek landutako materiala aurkeztuko dute, balorazioa egiteko.
- Taldeko kide kopurua talde-gela bakoitzeko ikasleen arabera erabakiko da. 4 ikasletik gorako taldeak egitea komeni da.

| 4. unitate didaktikoa: CURRICULUMAREN KONTZEPTUA ETA BERAU LANTZEKO OINARRIAK AZTERTZEA | Iraupena: 32 ordu |
|---|---|

*IE 2: Hezkuntzako esku-hartzearen helburuak zehazten ditu, eta horiek plangintza-mailekin, esku-hartzearen elementuekin eta aipatutako helburuak finkatzeko irizpideekin lotzen ditu esparru formaletan eta ez-formaletan.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Curriculumaren definizioak aztertzea.
2. Curriculum motak aztertzea.
3. Curriculumaren osagaiak identifikatzea.
4. Haur Hezkuntzako curriculumak euskarri dituen oinarriak deskribatzea.
5. Curriculum-zehazpenaren mailak identifikatzea.
6. Esparru formalean eta ez-formalean, zenbait motatako erakundeen plangintza-dokumentuak alderatzea.
7. Hezkuntza ez-formaleko jarduera baten plangintza-mailak identifikatzea: plana, programa eta proiektua, eta bat lantzea.
8. Hezkuntza-legeriak izandako bilakaera aztertzea, hezkuntzaren lege orokorretik LOEra.
9. Curriculum-esparrutik edota planetik edo programatik abiatuta, helburuak eta edukiak, eta haurren ezaugarriak hautatzea, haien banakako gaitasunak garatzea lortzeko.
10. Aniztasunarekiko arretaren garrantzia aztertzea.
11. Gure erkidegoko Haur Hezkuntzaren curriculuma aztertzea.
12. Hezkuntzako esku-hartzearen prozesuan plangintzak duen garrantzia baloratzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Curriculum baten osagaiak aztertu eta identifikatzea.<br>• Erakunde formalen eta ez-formalen plangintzako dokumentuak elkarrekin alderatzea.<br>• Esku-hartze ez-formaleko planak, programak eta proiektuak prestatzea.<br>• Gure erkidegoko Haur Hezkuntzaren curriculuma aztertzea. | | X<br>X<br>X<br>X | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Curriculuma. Haren motak eta osagaiak.<br>• Haur Hezkuntzako curriculuma.<br>• Banakako zehazpen-mailak.<br>• Esparru ez-formaleko esku-hartzearen plangintza-mailak: plana, programa eta proiektua. | | X<br>X<br>X<br>X | | | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| JARRERAZKOAK | • Esparru formalean eta ez-formalean, haurren arreta planifikatzearen garrantzia baloratzea.<br>• Planak, programak eta proiektuak egiteko sormena.<br>• Talde-lanaren garrantzia baloratzea. | | X<br>X<br>X | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0-E0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | Guztiak | 1 h. | X | X | Irakasleak galdeketa bat banatuko die ikasleei (talde txikitan antolatuko dira), eta ideia-zaparrada egitea proposatuko du. Galdeketan emandako erantzunak gela osoaren aurrean azalduko dira ondoren. | Ikasleek dituzten aurretiazko ezagupenak aztertu ondoren, indartu behar dituzten ikaskuntzak edo alderdiak ezagutzeko balioko du. | Galdera sorta.<br>Arbel magnetikoa. |
| J1 Azterketa terminologikoa. | Guztiak | 1,5 h. | X | | Ikasleen ikaskuntza-beharrak ezagutu ondoren, irakasleak unitate didaktikoa behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren terminoak argituko ditu. | Ikasleek oker ulertutako kontzeptuak argitzen dituzte eta curriculumaren inguruko oinarrizko terminologia ezagutzen dute. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |
| J2 Azalpena eta praktika autonomoa: “Curriculum motak”. | 1,2,3,4, 12 | 2 h. | X | X | Irakasleak curriculumaren inguruko sailkapenen azalpen laburra emango die ikasleei. Ikasleak bikoteka jarri eta curriculum mota desberdinen adibideak bilatuko dituzte Interneten. Amaitzeko, jasotako informazioa bateratuko da. | Ikasleek curriculum moten ikaskuntza esanguratsua egiten dute eta beraiei dagokie adibideak eta esperientziak bilatzea. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Informazioa jasotzeko material suntsikorra. |
| J3 Curriculum-zehazpenaren mailei buruzko azalpena. | 5, 12 | 1,5 h. | X | X | Irakasleak curriculum-zehazpenaren hiru mailak azalduko ditu: Ondoren, curriculum-zehazpenaren hiru mailak islatzen dituen taula bat landuko dute ikasleek banaka, eta honako alderdi hauek zehaztuko dituzte: egilea, dagokion dokumentua eta garatzen dituen alderdiak. | Ikasleek uler dezaten hiru mailak bereizteak duen garrantzia. Laburpenak egiteko eta lan pertsonala egiteko ohiturak sortzeko balio du. | Arbel magnetikoa.<br>Lan pertsonala egiteko materiala. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J4 Talde-lana: Dokumentuak bilatzea. | 5, 12 | 2 h. | | X | Interneten zehazpen-maila bakoitzaren adibideak bilatzeko eskatuko zaie ikasleei, banaka. Ondoren, taldeka jarri eta gela osoak batera lan egingo du. Lortutako dokumentuak bateratuko dituzte: antzekotasunak eta desberdintasunak aurkitu, hausnartu, ondorioak atera, eta abar. | Ikasleek eskura dituzten dokumentuak aztertzeko interesa agertzea eta horien gainean jarrera kritikoa garatzea lortu nahi da. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa. |
| J5 Talde-lanaren jarraipena: Dokumentuak bilatzea II. | 5, 6, 7, 12 | 2 h. | | X | Ikasleek bitarteko desberdinak erabiliko dituzte erakunde formalen eta ez-formalen plangintza-dokumentuak bilatzeko. Gela osoak bateratzeko aurkeztuko dira ondoren eta dokumentuen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ikusiko dira. | Ikasleek bi erakunde moten plangintzek dituzten desberdintasunak ulertzea bilatzen da.<br>Ikasten ikastea eta informazioaren kudeaketarekin lotutako konpetentziak lantzen jarraitzeko lagungarria da. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Ikasleak aukeratzen dituen beste informazio-bitarteko batzuk. |
| J6 Erakunde ez-formalen plangintzan sakontzea:<br>▪ Ludoteka batera bisita egitea<br>▪ Udalerriko udaletxeko gizarte-ongizateko zerbitzura bisita egitea. | 7, 9, 10, 12 | 4 h. | | X | Bisitak egiteko erakundeak aukeratu eta beraien planak, programak eta proiektuak aurkezteko eskatuko zaie.<br>Bisitaldiak egin ondoren, ikasleek ikusitakoaren iruzkina egingo dute. | Ikasleek plangintzaren gauzatzea in situ egiaztatzen dute.<br>Haur-eskolez gain, beste erakunde batzuk ezagutzen dituzte ikasleek, eta etorkizunera begira lanpostu bat lortzeko aukera ugariak ezagutzen dituzte. | Bisitatutako lekuekin harremanetan jartzea.<br>Erabilera pertsonaleko materiala. |
| J7-E1 Lan-taldeak, proiektu bat egiteko: Ludoteka. | 7, 9, 10, 12 | 8 h. | | X | Informazioa jaso ondoren, 4-5 ikaslek osatutako taldeak egin eta proiektu bat osatzeko eskatuko zaie. | Mota honetako dokumentuak nola lantzen diren ikasten hasten dira. | Lanerako material pertsonala.<br>Bisitetan jasotako informazioa.<br>Ikasgelako berezko materialak.<br>Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa. |
| J8 Hezkuntza-legeriaren bilakaerari buruzko azalpena eta praktika autonomoa. | 8, 12 | 2 h. | X | X | 1970etik hezkuntza-sistema arautu duten legeak aurkeztuko ditu irakasleak. Ondoren, lege horiek kontuan hartuta, ikasleek laburpen bat egingo dute: izandako bilakaera erakusteaz gain, elkarren arteko desberdintasunak eta une bakoitzean egindako ekarpena azpimarratzeko eskatuko zaie. | Ikasleak legeriak izandako bilakaeraz ohartzeko eta dokumentuak ezagutzen hasteko balio du.<br>Elkarlana garatzen jarraitzeko balio du. | Legeak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J9 LOEren azterketa sakona. | 8, 9, 10, 12 | 3 h. | X | X | Irakasleak azalpenak emango ditu eta, ondoren, LOEren edukien eskema bat egiteko eskatuko die ikasleei. Garrantzi berezia emango zaie osagaiei, konpetentziei, edukiei, estrategia metodologikoei eta ebaluazio-irizpideei. Azalpen teoriko labur bat eman ondoren, atal bakoitzaren adibideak jartzeko eskatuko zaie ikasleei. Horretarako, aldez aurretik erabilitako material guztia edukiko dute eskura, eta, beharrezkoa bada, ordenagailu-gelara joateko aukera emango zaie, Internet erabili ahal izateko. | Helburuak, edukiak, eta abar formulatzen hasten dira. Ikasleengan plangintza egiteko ohitura sustatzeko balio du. Ohitura hori jarduerak egiteko orduan erabiltzen dute ondoren. | Ikasgelako berezko baliabideak. Aurreko jardueretan erabilitako materiala. Interneterako konexioa duten ordenagailuak, beharrezkoa bada. |
| J10 Taldeko-gelako eztabaida aniztasunari buruz. | 9, 10, 12 | 2 h. | X | X | Irakasleak aniztasunari buruzko testu bat irakurriko die ikasleei. Gaiari buruzko eztabaida antolatuko da ondoren.<br>Amaitzeko, irakasleak ACI bana emango die ikasleei eta bideo bat ikusiko dute. Bideo horretan zailtasunak dituzten haurren beharretara egokitutako plangintza bati esker, haur horiek arazorik gabe integratu daitezkeela ikusiko dute. | Ikasleak aniztasunaren aurrean sentsibilizatzea eta banakako bakoitzaren beharren araberako plangintza egiteak duen garrantziaz ohartzea lortu nahi da. | Aniztasunari buruzko testua.<br>Bideoa-DVDa.<br>Erreproduzigailua. |
| J11 Gure erkidegoko curriculuma aztertzea. | 11, 12 | 1 h. | | X | Banaka edo binaka, haur-hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza-edukiak arautzen dituen euskal curriculuma eskuratuko dute ikasleek. Denbora hartu eta irakurtzeko eskatuko zaie; ondoren, kontzeptuzko mapa bat osatu beharko dute. | Ikasleek euren erkidegoko araudia ezagutuko dute eta berau erabiltzen ikasiko dute. | Interneterako konexioa duten ordenagailuak.<br>Lan pertsonala egiteko materiala. |
| J12-E2 Errepaso-ariketak. | Guztiak | 2 h. | | X | Ikasleek hainbat errepaso-ariketa egingo dituzte. Zailtasun gehien sortzen dituzten elementuak edo alderdiak ezagutzeko balioko du.<br>Jarduera honetan sor daitezkeen zalantza guztiak argituko ditu irakasleak. | Ikasleak lortutako ezagutza-mailaz ohartzea eta zalantzak argitzeko gai izatea bilatzen da. | Lanerako material pertsonala.<br>Errepaso-ariketak. |

| OHARRAK |
| --- |
| • Azalpenak laguntzeko eta errepaso-ariketak egiteko testu-liburu bat dago.<br>• Jardueren iraupena taldearen ezaugarrien eta erabilgarri dauden baliabideen arabera erabakiko da.<br>• Aniztasunaren tratamenduari eskaintzen zaion denbora luza daiteke, betiere beste modulu batzuetan eskaintzen zaion denboraren arabera. Edozein modutan, zehatzago landuko da hurrengo unitatean.<br>• Unitate honetan landutako alderdi asko osatu egingo dira ondorengo unitateetan.<br>• Ebaluazio-jardueren kasuan, ikasleek landutako materiala aurkeztuko dute, balorazioa egiteko.<br>• Taldeko kide kopurua talde-gela bakoitzeko ikasleen arabera erabakiko da.<br>• J7-E1 jarduerari dagokionez, informazioa jasotzeko eta lantzeko denbora asko behar denez, hiruhilekoan ordutegi zehatz bat erabaki ahal izango da. |

| 5. unitate didaktikoa: PROGRAMAZIOA DISEINATZEA | | | | | | | Iraupena: 32 ordu |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *IE 5: Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko jarduerak planifikatzen ditu, eta horiek programazioaren helburuekin eta haurren ezaugarriekin lotzen ditu.*<br><br>Ikaskuntzaren helburuak:<br>1. Jarduerak helburu, eduki, metodologia eta haurren banakako beharrekin lotzea, maila formalean eta ez-formalean.<br>2. Programatutako jardueretan zeharkako gaiak sartzea.<br>3. Aniztasunarekiko arretaz aritzeko eta desberdintasun sozialak konpentsatzeko jarduerak diseinatzea.<br>4. Litezkeen zailtasunak identifikatzea eta soluzio bideragarriak proposatzea.<br>5. Hezkuntza-behar berezi iraunkorren edo aldi baterakoen suposizioetarako curriculum-egokitzapenak aztertzea.<br>6. Talde hartzaileari hezkuntzaren aldetik laguntzeko behar berezien eta bakoitzaren ezaugarrien arabera curriculum-egokitzapenak egitea, kontuan hartuta nahastutako erakundeek edo profesionalek egindako gomendioak eta lortutako informazioa.<br>7. Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko jardueren plangintzaren eta programazio-helburuen arteko koherentzia baloratzea.<br>8. Haur Hezkuntzan programazioak duen garrantzia baloratzea. | | | | | | | |
| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Unitate didaktikoak programatu eta prestatzea.<br>• Curriculum-egokitzapenak diseinatzea.<br>• Jarduerak helburuekin, edukiekin, metodologiarekin eta haurren banakako beharrekin lotzea.<br>• Programatutako jardueretan zeharkako gaiak sartzea.<br>• Aniztasunarekiko arretaz aritzeko eta desberdintasun sozialak konpentsatzeko jarduerak diseinatzea.<br>• Litezkeen zailtasunak identifikatzea eta soluzio bideragarriak proposatzea.<br>• Zeharkakotasunaren eta aniztasunaren inguruan izandako esperientziak biltzea.<br>• Curriculum-egokitzapenak aztertu eta diseinatzea.<br>• Jarduera formalak eta ez-formalak abiaraztea. | | | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Programazioa 0 eta 6 urte bitarteko etapan.<br>• Haur Hezkuntzako jarduerak diseinatzea.<br>• Zeharkakotasuna.<br>• Aniztasunarekiko arreta:<br>  • Aniztasun funtzionalak. Motak. | | | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | • Curriculum-egokitzapenak. | | | | | X | |
| JARRERAZKOAK | • Programazioaren garrantziaz kontzientzia hartzea. | | | X | | | |
| | • Talde-jardueretan parte hartzea, iritziak alderatzea eta esperientziak trukatzea baloratzea. | | | X | | | |
| | • Programazio didaktikoak egiteko sormena. | | | X | | | |
| | • Bizitzaren lehen urteetatik zeharkakotasunak duen garrantziaz kontzientzia hartzea. | | | | | X | |
| | • Haur Hezkuntzako ikasgelan topa ditzakegun aniztasun funtzionalak ezagutzeko interesa. | | | | | X | |
| | • Jarduerak prestatzeko sormena. | | | | | X | |
| | • Jarduera formalak eta ez-formalak abiaraztean koherentzia baloratzea. | | | | | X | |
| | • Talde-lanaren eta ikastetxetik kanpoko agenteekin komunikatzearen garrantzia baloratzea. | | | | | X | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | Guztiak | 1 h. | X | | Irakasleak galdera generikoak egingo dizkie ahoz ikasle guztiei; ideia-zaparrada botako du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik. | Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko.<br>Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko. | Euskal Curriculuma (UD4tik lortu dute).<br>Arbel digitala.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Power Point-eko aurkezpena. |
| J1 Programazioaren ezaugarriei, funtzioei eta beharrari buruzko azalpena, eta programazioak zentro bateko gainerako antolamendu-dokumentuekin duen erlazioa. | 7, 8 | 1,5 h. | X | | Irakasleak klase magistrala emango du programazioaren ezaugarriei, funtzioei eta beharrari buruz, eta programazioa ikastetxe bateko gainerako dokumentuekin erlazionatuko du. | Ikasleek programazioa ezagutuko dute, eta ikastetxe batean duen garrantzia ikusiko dute. | Arbela elkarreragilea.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Power Point-eko aurkezpena. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J2 Eztabaida taldean-gelan, programazioak Haur Hezkuntzan duen garrantziari buruz. | 7, 8 | 1,5 h. | | X | Programazioak Haur Hezkuntzan duen garrantziari buruz eta programazioa eta gainerako dokumentuak bat etortzeak duen garrantziari buruz eztabaidatuko dute ikasleek taldean, eta hezitzailea izango da moderatzailea. | Komunikazioa eta entzute aktiboa garatzen da, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikasten dute ikasleek.<br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzen ikasten dute. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J3 Haur Hezkuntzako programazioan egindako proposamen didaktikoen azalpena. | 1 | 2 h. | X | X | Irakasleak proposamen didaktikoak aurkeztuko eta azalduko ditu: Esperientzia-arloak, jarduera globalizatuen elkarteak eta garapen-eremuek definitutako jardueren elkarteak. | Ikasleek programatzeko orduan eskaintzen zaizkien aukera ugariak ezagutzen dituzte eta emaitzak hobetzeko bat baino gehiago erabiltzeko aukera baloratzen dute. | Arbela elkarreragilea.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Power Point-eko aurkezpena. |
| J4 Taldeko eztabaida: aldez aurretik ikusitako proposamenen artetik bat aukeratzea. | 1 | 1 h. | | X | Proposamen bakoitzaren abantailei eta desabantailei buruz eztabaidatuko dute ikasleek taldean, eta hezitzailea izango da moderatzailea. | Komunikazioa eta entzute aktiboa garatzen da, eta arrazoitzen eta ikuspegi desberdinak onartzen ikasten dute ikasleek.<br>Dagokion lanbide-rola ondo betetzen komunikazioak duen garrantzia baloratzen ikasten dute. | Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J5 Haur Hezkuntzan erabiltzen diren antolamendu-proposamen ohikoenen konparaziozko azterketa. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 2 h. | | X | Ikasleak talde txikitan jarriko dira eta programazioa egiteko eskemak eta prozesuak Interneten bilatzeko eskatuko zaie. Ondoren, talde bakoitzak bere proposamena landuko du. | Programazioarekin lotuta aukera anitzak daudela ikusten dute ikasleek eta, era berean, aukerarik egokiena egiten ikasten dute. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Lanerako material pertsonala. |
| J6 Gehien erabiltzen den programazio-diseinuaren eskemari buruzko azalpena. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 2 h. | X | X | Ikasleek aurretik egindako azterketa kontuan hartuta, irakasleak Haur Hezkuntzako programazioa diseinatzeko eskema nagusia erakutsiko die. Xede horrekin, programazioko atal guztiak definituko dira eta guztiek duten garrantzia azpimarratuko da. | Ikasleek programazioaren osagai garrantzitsuenak ezagutzen dituzte, eta guztiak ondo formulatzeak duen garrantziaz ohartzen dira. Horretarako, adibideak landuko dituzte. | Arbel magnetikoa.<br>Ordenagailu eramangarria.<br>Power Point-eko aurkezpena. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J6.1 Talde-lana: Programazioak prestatzea. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | *3 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak egin eta proposatutako eskemarekin jarduerak programatzeko eskatuko zaie ikasleei. Talde bakoitzak landu dituen jardueren azalpenak emango ditu gela osoaren aurrean eta irakasleari emango dizkio ondoren, behar den bezala antolatuta. | Egoera desberdinak aurkeztu eta ikasleengan jarduerak sortzeko gaitasuna garatzea bilatzen da. | Lanerako material pertsonala.<br>Jarduera garatzeko materiala. |
| J7 Ikastetxe batera bisita egitea. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 1 h. | | | Ikastetxe batera bisita egingo da. | Ikastetxe baten antolamendua eta lan egiteko modua ezagutzeko balio du. Haur Hezkuntzako zentro batean egiten diren jarduerak *in situ* ikusten dituzte ikasleek. | Ikastetxe batekin harremanetan jarri, ikasleek bisita egiteko. |
| J7-E1 Praktika autonomoa. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 1 h. | | | Irakasleak gidoi bat banatuko die ikasleei eta laburpen-fitxa bat osatu beharko dute eta bisitan ikusitako guztia adierazi bertan. Jarrera kritikoa edukitzeak duen garrantzia azpimarratuko du irakasleak. | Lanbide-profilaren arabera jarduteko beharrezkoa den motibazioa, interesa eta jarrera kritikoa sustatu nahi da ikasleengan. | Gidoia.<br>Lanerako material pertsonala. |
| J8 Aniztasunaren tratamendua programazioarekin erlazioan.<br><br>J8.1-E2 Sarrerako azalpena. | 3, 4, 5, 6 | 2 h. | X | X | Irakasleak galdeketa bat banatuko du eta ikasleek gaiaren inguruan dituzten aurretiazko ideiak ezagutuko ditu horrela. Programazioa haur bakoitzaren berariazko beharretara egokitzeak duen garrantziaz jabetzen lagunduko ditu ikasleak. Ondoren, gaian sakondu aurretik ezagutzea komeni den zenbait kontzeptu azalduko ditu irakasleak. | Jarduerak haurren behar eta interesetara egokitzeak duen garrantziaren gainean sentsibilizatu nahi dira ikasleak.<br>Gaiaren abiapuntua eta beharrezkoa den inplikazioa ezagutzeko balio du. | Galdera sorta.<br>Ordenagailua.<br>Power Point-eko aurkezpena.<br>Arbel magnetikoa. |
| J8.2 Elkarrizketa aniztasun funtzionala duten herritarrekin lan egiten duen erakunde batekin. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 2 h. | | | Ezintasunak dituzten haurrekin lan egiten duen erakunde bateko profesional bat bertaratuko da gelara. | Zailtasunak dituzten pertsonei gizarteratzen laguntzeko dagokien zereginaren gainean ikasleak jabetzarazteko balio du, bai eta talde-lana eta helburuak lortzera begira | Erakunde batekin harremanetan jartzea.<br>Txostengileak erabiliko duen materiala. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J8.3 Bisitaldia inguruko Berritzegunera. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 1 h. | | | Inguruko Berritzegunera bisita egingo da. | jarduerak egokitzeak duen garrantzia baloratzeko ere.<br>Lan-taldearen funtzionamendua eta aniztasunaren alde betetzen duen eginkizuna zuzenean ezagutzen da. | Berritzegunearekin harremanetan jartzea. |
| J8.4 Talde-lana: ezintasunak eta arreta-zentroak. | 4,7, 8 | 2 h. | | | Ezintasunei eta arreta-zentroei buruzko lan bat egingo dute ikasleek. | Ikasleengan informazioa bilatzeko konpetentzia garatu nahi da eta, era berean, haurraren ikastetxearen arabera plangintza koherente bat egiteko beharraz jabetzea. | Ordenagailuak. |
| J8.5-E3 Talde-lana: ezintasunak dituzten pertsonentzako materiala lantzea. | 3 | 3 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak egin eta ezintasunik ez duten haurrak eta ezintasunak dituztenak nahasten diren gela batean garatzeko jarduerak diseinatzeko eskatuko zaie. Era berean, jarduera horiek garatzeko beharrezkoa den materiala landuko dute.<br>Gainerako ikaskideen aurrean erakutsiko dute azken produktua. | Etorkizuneko lanbide-ibilbidean beteko duten eginkizunetako bat praktikan jartzen dute eta haurren beharrei erantzuna emateko jarduerak eta materialak egokitzeak duen garrantzia baloratzen dute, betiere integrazioa azpimarratuz. | Lanerako material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J8.6 Talde-lana: ACIak aztertzea. | 5,6 | 2 h. | | X | Ikasleek banakako curriculum-egokitzapen desberdinak aztertuko dituzte. Horretarako, irakasleak aurreko unitatean emandakoez gain, Internetetik ateratako beste batzuk erabil ditzakete. | Ikasleek mota honetako dokumentuak ezagutzen dituzte eta dokumentuak izan dezakeen egokitzapena ezagutzen dute, halaber. | ACIak.<br>Lanerako material pertsonala. |
| J8.7 Eztabaida: Haurraren estimulazioan lan egiten duten eragile guztien artean lan koherente bat egiteak duen garrantzia. | 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8 | 1 h. | | X | Haurraren heziketan nahastutako pertsona guztiek modu koordinatuan lan egiteak duen garrantziari buruz eztabaidatuko da taldean. Sor daitezkeen arazoak eta horiek | Familiarekin zein zentroekin eta zentrotik kanpoko erakundeekin elkarlanean jarduteak duen garrantziaz jabetzea bilatzen da. | Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Aniztasunari buruzko atalean jasotako dokumentazioa. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | konpontzeko jarraibideak azpimarratuko dira. | Haurrarentzako finkatutako ikaskuntza-helburuak lortzera begira lan koherente bat egiteak duen garrantzia baloratzeko balio du.<br><br>Une jakin batean aholkularitza jasotzeko aukera edukitzeak duen garrantzia baloratzen dute ikasleek, bai eta gainerako eragileei aholkuak emateko eta elkarlanean jarduteko aukeraren garrantzia ere. | |
| J9 Errepaso-ariketak prestatzea. | Guztiak | 2 h. | X | X | Unitate honetan eta aurreko bietan landutako gaiak gogoratzeko ariketak egingo dituzte ikasleek. Errepasoa egitean sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu irakasleak. | Zalantzak argitzeaz gain, ikaskuntzak eta azken probako emaitzak hobetzen dira. | Material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| E4 Azken ebaluazioa: Idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h. | | X | Ikasleek azken bi unitateetan (unitate honetan eta aurrekoan) landutako gaiei buruzko galdeketa bat erantzungo dute banaka . | Gelan landutako azken ikasgaiarekin erlazionatutako konpetentzia teknikoak bereganatu direla egiaztatzeko balio du. | Idatzizko proba. |

| OHARRAK |
|---|
| • 6.1 jarduera ondo burutzea funtsezkoa da modulu honetan. Hortaz, oso zaila da berau garatzeko beharrezkoa izango den denbora zehaztea. Irakasleak erabakiko du kasu bakoitzean jarduera garatzeko erabiliko den denbora. Lan bakoitzaren erakusketa eta eztabaida egiteko 20 minutu hartuko dira, gutxienez. |

| 6. unitate didaktikoa: HEZKUNTZA BALIABIDEAK ETA AUKERA METODOLOGIKOAK HAUTATU ETA ERABILTZEA | Iraupena: 30 ordu |
|---|---|

*IE 3: Eredu psikopedagogikoen arabera aplikatu beharreko estrategia metodologikoak zehazten ditu.*
*IE 4: Haurtzaroko hezkuntzako parte-hartzean baliabide materialak eta pertsonalak, eta espazioak eta denborak zehaztu eta antolatzen ditu. Horretarako, legezko araudia aztertzen du eta irizpide pedagogikoak aplikatzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Azterketa terminologikoa.
2. Haur Hezkuntzako berariazko eredu didaktikoak identifikatzea.
3. Hezkuntzako esku-hartzea bera zehazteko hezkuntza-esperientzia garrantzitsuak alderatzea.
4. Irizpide metodologikoak hautatzean, erakundearen helburuak, curriculum-esparrua, eta haurren beharrak eta interesak kontuan hartzea.
5. Hezkuntzako parte-hartzearen arabera, material didaktikoak, espazioak eta denborak identifikatzea.
6. Estatuko eta autonomia-erkidegoko esparruaren arabera, hezkuntza formalean eta ez-formalean espazioak, baliabideak eta denborak erabiltzeari buruzko araudia deskribatzea.
7. Baliabide didaktiko gisa denboraren eta espazioaren antolamendua zehaztea.
8. Zereginak antolatzeko beharra onartu eta baloratzea.
9. Parte-hartzaileen, adinaren, metodologiaren eta aurreikusitako programazioaren arabera aztertzea taldekatzeko ereduak.
10. Espazioak, material didaktikoak eta altzariak aztertzea, eta segurtasun- eta higiene-arauak, eta irisgarritasun-baldintzak egiaztatzea.
11. Helburu, eduki eta irizpide metodologiak kontuan hartuta, material didaktiko eta didaktiko-elkarreragile egokiak hautatzea.
12. Espazioak, materialak, giza baliabideak eta denborak ezartzeko, haurren kopurua eta adina, eta, beharrezkoa izan denean, hezkuntza-behar bereziak kontuan hartzea.
13. Ingurune seguruak sortzearen garrantziaz arduratzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Haur Hezkuntzako eredu berrienek euskarri dituzten printzipio pedagogikoak aztertzea. | | | X | | | |
| | • 0 eta 6 urte bitarteko haurrekin izandako hezkuntza-esperientziak alderatzea. | | | X | | | |
| | • Irizpide metodologikoak hautatzean, erakundearen helburuak, curriculum-esparrua, eta haurren beharrak eta interesak kontuan hartzea. | | | X | | | |
| | • Hezkuntzako esku-hartzearen plangintza kontuan izanda, material didaktikoak eta didaktiko elkarreragileak hautatzea. | | | | X | | |
| | • Hezkuntzako esku-hartzearen plangintza kontuan izanda, espazioak, denborak eta baliabideak (materialak eta pertsonalak) esleitzea. | | | | X | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | • Parte-hartzaileen, adinaren, metodologiaren eta aurreikusitako programazioaren arabera aztertzea taldekatzeko ereduak.<br>• Espazioak. material didaktikoak eta altzariak aztertzea, eta segurtasun- eta higiene-arauak, eta irisgarritasun-baldintzak egiaztatzea. | | | | X<br>X | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Haur Hezkuntzako berariazko eredu didaktikoak.<br>• Material didaktikoak, espazioak eta denborak.<br>• Hezkuntza formalean eta ez-formalean horiek erabiltzeari buruzko araudia.<br>• Haurren arretara zuzendutako espazioetako segurtasunari buruzko araudia.<br>• Baliabide didaktikoak: espazioaren eta denboraren antolamendua.<br>• Espazioetarako irisgarritasuna | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X<br>X | | | |
| JARRERAZKOAK | • Egungo hezkuntza-jarduna sorrarazi duten eredu didaktikoekiko interesa.<br>• Ingurune seguruak eta irisgarriak sortzearen inguruan sentsibilizatzea.<br>• Ingurune seguruak eta irisgarriak sortzearen garrantzia baloratzea.<br>• Eginkizun guztiak antolatzearen garrantzia baloratzea. | | | X | X<br>X<br>X | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. | Guztiak | 1 h. | X | | Unitate didaktiko honen aurkezpena egiteko, irakasleak aurreko unitatean landutako programazio-eskema erabiliko du. Izan ere, eskema horretan aipatzen dira unitate honetan garatzen diren bi funtsezko alderdi: baliabide didaktikoak eta aukera metodologikoak.<br>Unitatea nola garatuko den argituko du irakasleak. Horretarako, landuko diren edukiak eta horiek lantzeko moduak aurkeztuko ditu. | Ikasleak landuko den edukiaz eta edukia lantzeko moduaz jabetuko dira. Ikasleengan beharrezkoa den motibazioa eta interesa piztea bilatzen da. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J1 Konparaziozko azterketa: baliabide didaktikoak eta aukera metodologikoak. | 1 | 1 h. | X | X | Bikoteka jarri eta bien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak paper batean idazteko eskatuko zaie ikasleei. Halaber, termino bakoitzak zer adierazten duen azaltzeko eskatuko zaie.<br>Hausnarketa laburra egin ondoren, gela osoak batera aztertuko ditu lortutako emaitzak.<br>Amaitzeko, irakasleak bi terminoen definizioak emango ditu eta bakoitzarekin lotuta landuko den edukia azpimarratuko du. | Jada landutako alderdien inguruan hausnartzera animatu nahi dira ikasleak, eta gaiari buruzko ondorioak ateratzen ikasten dute gainera. | Lanerako material pertsonala.<br>Arbel magnetikoa. |
| J2 Espazioa baliabide didaktiko gisa. | 6, 7, 8 | 1 h. | X | | Irakasleak Haur Hezkuntzako zentro batean kontuan hartu beharreko alderdiei eta erabiltzen diren espazioei buruz hitz egingo die ikasleei. | Ikasleen artean espazioarekin lotuta araudiak dioena ezagutzera emateaz gain, ikasleak jarduera ondo garatzeko espazioa behar den bezala antolatuta egoteak duen garrantziaz jabetzea lortu nahi da. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Arbel magnetikoa.<br>Gaiari lotutako legeria. |
| J3 Talde-lana: maketa bat egitea. | 6, 7, 8, 12,13 | 5 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak egingo dira eta Haur Hezkuntzako zentro bateko espazioen maketa txiki bat egiteko eskatuko zaie. Aldez aurretik zenbat hutsune nahi diren, materiala non kokatu, iresgarritasuna, eta abar bezalako alderdiak zehaztu beharko dituzte. | Ikasleei espazioekin lan egiteko aukera ematen zaie: lehentasunak erakusten dituzte, izan daitezkeen oztopoak ikusten dituzte, inguru egokiak sortzeko ideiak ematen dituzte, eta abar. | Maketa egiteko beharrezkoa den materiala. kartoiak, kartoi meheak, plastilina, material birziklatua, eta abar. |
| J4 Azalpena eta praktika autonomoa: Denbora baliabide didaktiko gisa. | 6, 7, 8, 12,13 | 2 h. | X | X | Irakasleak denborari buruzko edukiak aurkeztuko ditu: jarduerek denboran duten banaketa, ordutegia, eta abar. Ondoren, ikasleak bikoteka jarriko dira eta jarraian adierazitako suposizioekin | Ikasleak gelak zein zentroak ondo funtzionatzeko denbora egoki antolatzeak duen garrantziaz jabetzea lortu nahi da. | Lanerako material pertsonala. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | adibide bat egiteko eskatuko zaie: kronograma bat, ordutegi bat, eta abar. | | |
| J4.1 Egokitzeko aldia. | 6, 7, 8, 12, 13 | 3 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak antolatu eta ikasleek berariazko tratamendua eskatzen duen denbora berezi bati buruzko lan bat egiteko eskatuko zaie: Egokitzeko aldia da, hain zuzen ere, aldi hori. | Egokitzeko aldiaren inguruan ikerketa-lana egiten da, eta hainbat informazio-iturritan lortutako informazioa hautatzen eta alderatzen ikasten dute ikasleek, azkenean, gaiaren inguruan iritzi propioa osatzeko. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Elkarrizketak hezitzaileekin.<br>Bibliografia.<br>DVDa. |
| J5 Materiala baliabide didaktiko gisa. | 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13 | 1 h. | X | | Irakasleak materialarekin erlazionatutako atalak garatuko ditu: altzariak, jolasteko materialak, inguruko eta naturako materialak, material suntsikorra. | Haur-eskola batek funtzionatzeko beharrezkoa duten material guztiaz ohartzen dira ikasleak. | |
| J6 Materialaren zerrendak prestatzea. | 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13 | 2 h. | | X | Ikasleek adin desberdinetarako oinarrizko materialen zerrenda bat osatuko dute, aldez aurretik adierazitako atal bakoitzean. Ondoren, hainbat jardueretarako beharrezkoak diren materialen zerrenda landuko dute: psikomotrizitatea, lengoaia, jolas librea, esperimentala, eta abar. | Behar diren materialak identifikatzen dira, lehentasunak ezartzen dira, eta abar. | Lanerako material pertsonala.<br>Katalogoak, eta abar. |
| J7 Giza baliabideei buruzko azalpena. | 12 | 1 h. | X | | Irakasleak hezkuntza formaleko eta ez-formaleko lan-taldeetako giza baliabideak aipatuko ditu laburki. Hurrengo unitatean osatuko da puntu hau, bertan organigrama eta funtziograma lantzen baitira. | Ikasleak hezkuntza-prozesuan nahastutako pertsonen garrantziaz ohartzea bilatzen da: irakasleak, irakasleak ez diren langileak, eta abar. | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J8 Errepaso-ariketak: hezkuntza-baliabideen antolamendua. | Guztiak | 2 h. | | X | Irakasleak proposatzen dituen jarduerak egingo dituzte ikasleek. | Orain arte bereganatutako ezagupenak finkatu eta horiek erabiltzen hasten dira. | Errepaso-ariketak.<br>Lanerako material pertsonala. |
| J9-E1 Azalpena eta talde-lana: Aukera metodologikoak. | 2, 3, 4 | 1 h.<br><br>5 h. | X | <br><br>X | Irakasleak unitate hasieran aipatutako aukera metodologikoen kontzeptua ekarriko du gogora eta horietako batzuk azpimarratuko ditu: interesguneak, txokoak, eta abar. Gaia sakonkiago aztertzeko, 4-5 ikaslek osatutako taldeak egingo dira. Talde bakoitzak aukera metodologiko bat hartuko du eta fitxa bat landuko du honako alderdi hauek barne hartuz: definizioa, antolamendua, garapena eta berau erabiltzeko adinak. Jasotako informazioa kontuan hartuta, talde bakoitzak landu duen fitxa erakutsiko du eta egindako aukeraren araberako simulazio bat egingo du. Beharrezko materiala hartuko du, espazioa antolatuko du, denbora egokitu, eta abar. | Programazioetan proposatutako jarduerak garatzeko beharrezkoa duen informazioa bilatzeko eta aukeratzeko gaitasuna indartu nahi da ikasleengan. Era berean, gelaren barruan jarduteko modu desberdinak daudela erakutsi nahi da eta emaitzak hobetzeko guztiak barne hartzeak duen garrantziaz jabetzea lortu nahi da. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa.<br>Banakako lanerako materiala.<br>Erakusketarako beharrezkoa den materiala. |
| J10 Praktika autonomoa: aukera metodologikoen arteko konparaziozko azterketa. | 2, 3, 4 | 1 h. | | X | Irakasleak aukera metodologiko desberdinak erakutsiko ditu eta ikasleek bakoitzak dituen abantailak eta desabantailak azpimarratuko dituzte. Bat aukeratu dezakete, edo bat baino gehiago batera erabiltzeko aukera egin dezakete. | Ikasleak aukera guztiak baloratzeak, gogoeta egiteak eta hezkuntza-jarduna aberastuko duten ondorioak ateratzeak duen garrantziaz jabetzen dira. | Lanerako material pertsonala. |
| J11 Haur Hezkuntzako bi zentrotara bisita egitea. | Guztiak | 4 h. | | | Ikasleak bi haur-zentrotara joango dira. | Ikasleek *in situ* ikusten dute jarduteko modu desberdinak nola garatzen diren; era berean, aukera metodologikoaren arabera baliabide desberdinak erabiltzen direla ohartzen dira. | Proposamen desberdinak garatzen dituzten inguruko Haur Hezkuntzako bi zentrorekin harremanetan jartzea. |

| OHARRAK |
| --- |
| |

| 7. unitate didaktikoa: IKASTETXE BATEN ANTOLAMENDU DOKUMENTUAK DISEINATZEA: IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA ETA IKASTETXEAREN CURRICULUM PROIEKTUA | Iraupena: 25 ordu |
|---|---|

*IE 2: Hezkuntzako esku-hartzearen helburuak zehazten ditu, eta horiek plangintza-mailekin, esku-hartzearen elementuekin eta aipatutako helburuak finkatzeko irizpideekin lotzen ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Ikastetxe baten antolamendu-dokumentuak identifikatzea.
2. Dokumentu bakoitzak dituen elementuak eta ezaugarriak aztertzea.
3. Antolamendu-dokumentuak lantzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Dokumentuen analisi diferentziala. | | X | | | | |
| | • Hezkuntza-proiektu baten eta curriculum-proiektu baten osagaiak aztertu eta identifikatzea. | | X | | | | |
| | • IHP bat eta ICP bat prestatzea. | | X | | | | |
| KONTZEPTUZKOAK | • Ikastetxe baten antolamendu-dokumentuak: OCD, BEA, IHP, ICP, memoria, urteko plana, eta abar. | | X | | | | |
| | • Ikastetxeko aginte-organoak eta parte hartzeko organoak: | | X | | | | |
| | ◦ Eskola-kontseilua. | | | | | | |
| | ◦ Irakasleen klaustroa. | | | | | | |
| | ◦ Zuzendaritza eta zuzendaritza-taldea. | | | | | | |
| | ◦ Guraso-elkarteak. | | | | | | |
| | • IHP: osagaiak. | | X | | | | |
| | • ICP: helburuak eta bertan hartzen diren erabakiak. | | X | | | | |
| JARRERAZKOAK | • Ikastetxe baten antolamendu-dokumentuen garrantzia baloratzea. | | X | | | | |
| | • Dokumentu horiek ondo lantzeak eta abiarazteak duen garrantzia baloratzea. | | X | | | | |
| | • Talde-lanak eta laneko erabakiak elkarrekin hartzeak duen garrantzia baloratzea. | | X | | | | |
| | • Dokumentuak egiteko sormena. | | X | | | | |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | Guztiak | 1 h. | X | X | Irakasleak galdeketa labur bat egingo du unitatearen abiapuntua zein den ezagutzeko. | Ikasleak ikastetxe baten antolamendua ezagutzen du.<br><br>Ikastetxe batean aipatutako dokumentuek duten garrantzia eta beharrezkoa duten inplikazioa baloratzen dute ikasleek. | Galdera sorta.<br>Arbel magnetikoa. |
| J1 Azalpena eta praktika autonomoa: Ikastetxe baten antolamendu-dokumentuak aztertzea. | 1, 2 | 2 h. | X | X | Ikasleek konparaziozko taula bat erabiliko dute ikastetxe bateko dokumentuen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak azpimarratzeko (OCD, BEA, IHP, eta abar). Nork lantzen duen, iraupena eta bakoitzaren ezaugarriak hartuko dira kontuan bereziki. | Ikasleek dokumentuek betetzen dituzten funtzio desberdinak ikusten dituzte. | Lanerako material pertsonala. |
| J2-E1 Azalpena eta talde-lana: Hezkuntza-proiektu bat prestatzea. | 3 | 5 h. | X | X | Ikasleei testuinguru-fitxa bat eta azalpen bat emango zaie eta IHP bat landuko dute ondoren. 4-5 ikaslek osatutako taldeak egingo dira.<br><br>Lana irakasleari aurkeztuko zaio, berak ebaluatzeko. | Ikastetxe batean aipatutako dokumentuek duten garrantzia eta beharrezkoa duten inplikazioa baloratzen dute ikasleek. | Lanerako material pertsonala.<br>Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa. |
| J3 Talde-lana: Curriculum-proiektuak alderatzea. | 1, 2 | 2 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak egin eta haur-hezkuntzako eskoletako curriculum-proiektuak bilatuko dituzte: 0-3 urteko ziklokoak eta irizpide sozioekonomiko desberdinen araberakoak. Dokumentuak alderatu eta ondorioak aterako dituzte. Ondoren, gelaren aurrean eztabaidatuko dute. | Ikasleak aniztasun handia dagoela ohartzeko balio du, bai eta gaiaren aurrean jarrera edo iritzi bat osatzeko ere. | Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J4 Curriculum-proiektu bat lantzeko oinarrizko jarraibideei buruzko azalpena. | 1, 2, 3 | 2 h. | X | | Irakasleak ICP bat lantzeko oinarrizko jarraibideei buruzko azalpenak emango ditu. Kontuan hartu behar diren faseak edo uneak deskribatuko ditu. | Mota honetako dokumentu bat lantzeko orduan kontuan hartu behar diren alderdi guztiez ohartarazi nahi dira ikasleak. | Power Point-eko aurkezpena.<br>Ordenagailua.<br>Arbel magnetikoa. |
| J5 Talde-lana: Curriculum-proiektu bat prestatzea. | 3 | 13 h. | | X | Ikasleak taldeka jarri eta curriculum-proiektu bat prestatuko dute. Horretarako, irakasleak aipatutako faseak beteko dituzte. | Ikasleek mota honetako dokumentuak hobeto ezagutzeko, eta horrelako bat lantzeko orduan kontuan hartu behar diren alderdi guztiez ohartarazteko balio du. | Lanerako material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Ordenagailuak.<br>Internet-konexioa. |

| OHARRAK |
|---|
| • Unitate honen denboralizazioa, gelan dokumentuak lantzeko hartzen den denboraren mende dago.<br>• Azalpenak laguntzeko eta errepaso-ariketak egiteko testu-liburu bat dago. |

| 8. unitate didaktikoa: HAUR HEZKUNTZAN EBALUAZIO TRESNAK LANDU ETA ERABILTZEA | Iraupena: 24 ordu |
|---|---|

*IE 6: Esku hartzeko prozesuen ebaluazioa diseinatzen du, eta hautatutako ereduari, eta erabilitako estrategiei, teknikei eta tresnei buruzko argudioak eman ditu.*

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Ebaluazio-eredu desberdinak identifikatzea.
2. Ebaluaziorako estrategiak eta teknikak zehazteko, esku-hartzearen plangintza eta uneak kontuan hartzea.
3. Esku hartzeko prozesuaren une jakin batzuetan, ebaluaziorako estrategiak eta teknikak hautatzea.
4. Ebaluazio-jarduerak diseinatzeko, hezkuntza formalaren kasuan, curriculum-esparruaren barruan, eta, hezkuntza ez-formalaren kasuan, planaren edo programaren barruan ezarritako irizpideak eta prozedurak kontuan hartzea.
5. Esku hartzeko prozesuaren une jakin batzuetan ebaluazio-adierazleak ezarri ditu. Horietan, honako alderdi hauek balortzen ditu: helburu eta irizpide metodologikoen egokitzapena, edukien eta jardueren hautaketa eta sekuentziazioa, eta erabilitako espazioen eta materialen funtzionaltasuna.
6. Prozesuaren une jakin batzuetan ebaluazioak duen garrantzia baloratzea.
7. Zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea etengabe hobetzeko jarrera izatearen garrantzia baloratzea.
8. Hezitzaileak etengabe prestatzeko baliabideak identifikatzea.

| EDUKIAK | | Multzoak | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| PROZEDURAZKOAK | • Ebaluazio-tresnak identifikatu, hautatu eta prestatzea.<br>• Esku-hartzearen une jakin batzuetan ebaluazio-adierazleak ezartzea.<br>• Ebaluazio-prozesuetatik lortutako informazioa interpretatzea.<br>• Hezkuntza-jarduera oro zuzendu behar duten kalitate-printzipioak identifikatzea eta hobetzeko proposamenak egitea. | | | | | | X<br>X<br>X<br>X |
| KONTZEPTUZKOAK | • Ebaluazioa. Ereduak, teknikak eta tresnak.<br>• Ebaluazio-adierazleak.<br>• Behaketa, balio handiko tresna gisa.<br>• Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan. | | | | | | X<br>X<br>X<br>X |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| JARRERAZKOAK | • Hezkuntzako esku-hartzearen prozesuan une jakin batzuk ebaluatzeko beharra antzematea.<br>• Autokritikarako eta autoebaluaziorako aldez aurreko jarrera.<br>• Etengabe eguneratu eta prestatzea.<br>• Etengabe hobetzeko jarrerarekin, kalitatezko hezkuntza-zerbitzua eskaintzearen beharraz kontzientzia hartzea.<br>• Teknologia berriak informazio-iturri gisa erabil daitezen baloratzea. | | | | | | X<br>X<br>X<br>X<br>X |

| JARDUERA | | | | | METODOLOGIA | | BALIABIDEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ZER egingo dudan edo duten<br>Jarduera mota | Helburu inplikat. | D. | NORK | | NOLA egingo den | ZERTARAKO egingo den | ZEREKIN egingo den |
| | | | Ir. | Ik. | | | |
| J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena.<br>E0 Hasierako ebaluazioa. | Guztiak | 1 h. | X | X | Ikasleen laguntzarekin egingo du irakasleak azken unitate didaktiko honen aurkezpena. Izan ere, ebaluazioa sarritan agertu da moduluan eta ikasleek jada ezagutzen dute. Horrenbestez, irakasleak hainbat galdera egingo ditu eta ikasleek emandako erantzunekin unitatean landuko diren gaien aurkezpena egingo du. | Hezkuntza-prozesuan ebaluazioak duen garrantzia baloratzeko balio du. Hobekuntza-tresna gisa ulertu behar dute.<br>Ikasleak modulu honetan eta gainerakoetan ikasitakoaz jabetzea bilatzen da. | Arbel magnetikoa. |
| J1 Ebaluazioaren kontzeptua azaltzea. | 1, 6, 8 | 2 h. | X | | Irakasleak ebaluazioaren kontzeptua azalduko die ikasleei. Ebaluazioak hezkuntza-sistemaren barruan duen eginkizuna azpimarratuko da eta ebaluatuko diren alderdiak eta hezitzaileak ebaluazioan betetzen duen eginkizuna aipatuko zaie ikasleei. Jarraian, irakasleak ebaluazioaren ezaugarriei eta mota desberdinei buruz hitz egingo die ikasleei. | Hezkuntzako esku-hartzean ebaluazioa funtsezkoa dela ohartzea bilatzen da eta pertsonak zein prozesuak, dokumentuak, eta abar, horren mende daudela ulertzea.<br>Hezitzaileak ikasleen ebaluazioa egitean betetzen duen eginkizun garrantzitsua ulertzera eman nahi zaie ikasleei. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J2 Azalpena eta praktika autonomoa: Ebaluazioa-prozesua. | 1, 2, 3, 6, 7, 8 | 2 h.<br><br>2 h. | X | <br><br>X | Irakasleak ebaluazioa-prozesua eta bere faseak azalduko ditu.<br><br>Ondoren, ikasleek eskema bat osatuko dute eta Haur Hezkuntzako ebaluazio-metodoak eta –tresnak azpimarratuko dituzte. Ebaluazio-tresnak errazago jasotzeko, irakasleak taula bat emango die ikasleei honako alderdi hauekin: Metodoa, tresna, Haur Hezkuntzan ematen zaion erabilera, ebaluatzen duen esparrua, zer fase dagokio, maiztasuna. | Ikasleek ebaluatzeko modua ezagutzen dute eta nork, nola eta noiz ebaluatu behar den ikusten dute. | Arbela elkarreragilea.<br>Lanerako material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J3-E1 Praktika autonomoa: Ebaluazio-metodoen praktika.<br><br>J3.1 Behatzeko esperientziak ikustea.<br><br>J3.2 Galdera sorta bat prestatzea.<br><br>J3.3 Azterketa-lan bat egitea.<br><br>J3.4 Test-ak bilatzea. | 4, 5, 6, 7, 8 | 4 h. | | X | Ikasleek banaka landuko dituzte lau ebaluazio-metodoak, prozedura honi jarraituz:<br>• Behaketa: Haur-hezkuntza zentro bateko 4 egoera ikusiko dira eta ikasleek garrantzitsutzat jotzen duten informazioa jasoko dute.<br>• Galdeketa: Aurreko unitateetan erabilitako Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak erabiliko dira eta ikasleak binaka jarri ondoren, galdeketa bat banatuko zaie bertan adierazitako helburu orokorrak betetzen ote diren ebaluatzeko.<br>• Azterketa: Ikasleek dokumentu bat landuko dute eta bertan haur baten jarduera psikomotorra aztertuko dute. Ariketa desberdinetan | Ikasitakoa erabiltzeko eta praktikan jartzeko balio du. Ikasleek mota honetako praktikak garatzeko duten trebetasuna sustatu nahi da.<br>Tresna erabilgarrienak ezagutzen dira. | Bideoa-DVDa.<br>Erreproduzigailua.<br>Lanerako material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Interneterako konexioa duten ordenagailuak. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | egituratzea komeni da, hartara akatsak eta ondo eginak mailaka jasotzeko. Helburua da haurraren eboluzioa aztertzea.<br>• Testa. Interneten Haur Hezkuntzan erabiltzen diren testak bilatzea. | | |
| J4-E2 Talde-lana: Ebaluazio-tresnak prestatzea. | 4, 5, 6, 7, 8 | 3 h. | | X | 4-5 ikaslek osatutako taldeak antolatu eta ikusi diren ebaluazio-tresna bakoitzaren adibideak jartzeko eskatuko zaie. anekdota-bilduma, zenbatespen-eskalak, galdeketa, eta abar. Guztiak egingo dira jarduera edo jarreren ebaluazioa egiteko. | Ikasleak ebaluazio-tresna ondo aukeratzeak duen garrantziaz jabetzea bilatzen da, eta unearen, jarreraren edo jardueraren arabera tresna bat edo beste bat aukeratu behar dela ulertzea. Ikasleak ebaluazio-tresna guztiak ezagutzeak eta erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko balio du. | Lanerako material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J5 Azalpena eta praktika autonomoa: Ikastetxe batean abiarazitako ebaluazio-prozesuak. | Todos | 3 h. | X | X | Irakasleak ebaluazio-prozesua erakutsiko die ikasleei, ikastetxe-mailan garatzen dena (dokumentuak, zerbitzuak, baliabideak, eta abar), eta hezkuntzaa-jarduera eta ikasleekin (banaka eta taldean) erlazioan.<br><br>Ikasleek atal honen laburpena egingo dute ondoren. | Ikasleek ikastetxe batean irekitako prozesu guztiak ebaluatzeak duen garrantzia ulertzea bilatzen da.<br>Ikasleek informazioa kudeatzeko gaitasuna edukitzea bilatzen da. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena.<br><br>Lan pertsonala egiteko materiala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak. |
| J6 Familiak ebaluazio-prozesuan duen eginkizunaren azalpena. | Guztiak | 1 h. | X | | Irakasleak eskola-familiaren arteko erlazioak duen garrantziaz hitz egingo die ikasleei. Horretarako, informazioa jasotzeak eta behar den bezala igortzeak duen garrantzia azpimarratuko du. Atala honetan landuko dira: eguneko parteak, zerrendak edo kontrol-eskalak, elkarrizketak, txostenak egitea, eta abar. | Ikasleen garapena hobetzera begira, ikasleak informazioa jasotzeak eta behar den bezala igortzeak duen garrantziaz jabetzea bilatzen da. | Arbel magnetikoa.<br>Power Point-eko aurkezpena. |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| J7.1-E3 Talde-lana:<br><br>J7.1 Haurra eskolara lehen aldiz sartzean gurasoei ematen zaien galdeketa.<br><br>J7.2 Role Playing: hasierako elkarrizketa. | Guztiak | <br><br>1 h.<br><br><br>2 h. | | <br><br>X | 3 ikaslek osatutako taldeak egin eta ikasleek ikastetxera lehen aldiz sartzean banatzeko galdeketa bat prestatuko dute. Ondoren, galdeketa hori erreferentzia moduan hartuta, talde bakoitzak familiarekin egingo den hasierako elkarrizketa bat prestatuko du. Ondoren, role-playing-aren bitartez antzeztuko duten gainerako ikaskideen aurrean. Ikasleek onartzen badute, bideoan grabatu eta ondoren ikusteko aukera azter daiteke. | Familiarekin ondo komunikatzeak duen garrantzia baloratu nahi da, haurraren garapen egokia lortzeko informazio-iturri garrantzitsua baita. | Lanerako material pertsonala.<br>Ikasgelako berezko baliabideak.<br>Bideo-DVD erreproduzitzailea. |
| J8 Haur-hezitzaile baten hitzaldia, ebaluazioaren garrantziari buruz. | Guztiak | 2 h. | | | Gelara hezitzaile bat gonbidatuko da ebaluazioak duen garrantziari buruz hitz egiteko eta benetazko ebaluazio-dokumentuak eta esperientzia zehatzak erakusteko eta aditzera emateko. | Ikasleengan gaiaren inguruan motibazioa eta interesa sustatu nahi dira, bai eta jakin-mina piztu ere. Gaiarekin lotutako esperientziak zuzenean ezagutuko dituzte. | Haur-hezitzaile batekin harremanetan jartzea.<br>Ikasgelako berezko baliabideak eta erakusketarako beharrezkoak direnak. |
| E4 Azken ebaluazioa: Idatzizko proba bat ebaztea. | | 1 h. | | X | Ikasleek azken bi unitateetan landutako gaiei buruzko galdeketa bat erantzungo dute banaka.<br><br>Bai. | Gelan landutako azken ikasgaiarekin erlazionatutako konpetentzia teknikoak bereganatu direla egiaztatzeko balio du. | Idatzizko proba. |

OHARRAK

- Azalpenak laguntzeko eta errepaso-ariketak egiteko testu-liburu bat dago.
- Jardueren iraupena taldearen ezaugarrien eta erabilgarri dauden baliabideen arabera erabakiko da.
- Ebaluazio-jardueren kasuan, ikasleek landutako materiala aurkeztuko dute, balorazioa egiteko.
- Taldeko kide kopurua talde-gela bakoitzeko ikasleen arabera erabakiko da.